TOLOSALDEA

ESKOLAKO AGENDA 2030

MUGIKORTASUNA

TOLOSa

tolosakoingurumenzentroa

TOLOSA



KAIXO!

- Eskolako Agenda 2030 proiektuan egindako lanaren berri ematera gatoz.
- Ikasturte honetan, bi urtetako erronkari eman diogu hasiera.
- Garapen Iraunkorrerako 11. Helburua: hiri eta komunitate jasangarriak izan dugu abiapuntua eta MUGIKORTASUNA aukeratu dugu langaia bezala.

LANTALDEA

- Herrikide ikastetxea
- Laskorain ikastola
- Orixe institutua
- Samaniego ikastetxea

22 urte daramagu Tolosako ikastetxeek proiektu honetan elkarlanean



Orotara **3.100** ikasle inguru gara haur hezkuntzatik batxilergoraino.

TOLOSALDEAN



- **Aduna, Anoeta, Amasa-Villabona, Asteasu, Berastegi, Ibarra, Irura eta Zizurkilgo ikaslek** ere parte hartu dute Eskolako Agenda 2030 egitasmoan.
- Baina ez gaude bakarrik, **irakasle, eskolako beste langile, eta gurasoek** ere parte hartzen dute.

Egindako lana

1 Udazkenean, mugikortasun gaia girotzeko, motibazio jarduerak burutu ditugu.

2 Udaberrian, herriko diagnostikoaren txanda iritsi da. Mugikortasuna gelan eta gelatik kanpo aztertzen aritu gara.

Jarraian burututako jarduerak eta atera ditugun emaitzak aurkeztuko dizkizuegu.

HAUR HEZKUNTZA

Mugi mugi

- Eskolara nola joaten gara eta zergatiaz hitz egin dugu:

  Herrikiden eta Laskorainen gehienak oinez, Samaniego berriz autobusez eta batzuk Lagunbusean.
- Garraio dezberdinak ezagutu ditugu.
- Batzuk besteak baino ke gutxiago sortzen dutela ikasi dugu.

Gabonetan gure bizikletarako matrikula egin ditugu





Gutxien erabiltzen ditugun garraioak dira erakargarriak egiten zaizkigunak.

LH / 1.ZIKLOA

Eskolarako bidea

- Eskolara nola joaten garen aztertu ondoren oinez joateak dituen “abantailak“ zerrendatu ditugu.
- Etxean inkesta egin dugu gure ohiturak ezagutzeko.

Ondorio hauek atera ditugu:

- Gehiengoa oinez joaten gara ikastetxera eta lagunekin bizikletaz joatea gustatuko litzaiguke.
- Gehiengoak, autoa dugu etxean eta askotan bi. Hau da gehien erabiltzen den garraioa.
- Garraio publikoa gutxi erabiltzen dugu ordutegi bat bete behar delako.

LH / 2.ZIKLOA

Kalean gora kalean behera

- Kanpora atera gara kalea behatzera, eta elementu fisikoak aztertu ditugu.
- Herritarren jokabideak aztertu ditugu, gidarienak zein oinezkoenak.

Herritarrek hau erantzun dute:

- Tolosan oinezkoei garrantzi handia ematen zaie.
- Patinete elektrikoak oso azkar ibiltzen dira.
- Oinezko batzuek begiratu gabe gurutzatzen dute zebrabidea eta bidegorritik joaten dira arazoak sortuz.
- Kotxe batzuk gaizki aparkatuta daude.

LH / 3. ZIKLOA

Kalean gora kalean behera

- Kalean, elementu fisikoak eta herritarron jokabideak aztertu ditugu.
- Besteen azalean jarri gara oztopoak identifikatzeko.
- Herritarren ohituraz eta iritziaz galdetu dugu.



Hauek dira aipatutako arrisku batzuk:

- Errepideetan eta oinezkoen guneetan zuloak, koskak eta hautsitako baldosak daude, adibidez Amarotzeko tunelean, Plaza Berrian eta Triangulo Plazan.
- Zebrabideak ondo margotu behar dira.
- Iurreamendi ibilbidean bizikletak arriskuak eta beldurrak sortzen dituzte.
- Kiroldegiko zubiaren egurrak arriskutsuak daude.
- Gune batzuetan espaloia estuegia da, Kondeaneko aldapan adibidez.

KONPROMISOAK
HH-LH

- Bizikletan joaten garenean bidegorriak erabiliko ditugu, espaloiak eta zebrabideak errespetatuz eta zebrabideetan oinezkoei bidea emango diegu.
- Zebrabidetik gurutzatuko dugu eta aurretik bi aldeetara begiratuko dugu.
- Arauak beteko ditugu, trafiko seinaleak errespetatuz eta semaforoa gorria badago itxoain egingo dugu berdea jarri arte.



- Gu baina zailtasun gehiago dutenei bidea libre utziko diegu eta laguntzen saiatuko gara.
- Bizikletaz talde handian goazenean binaka joango gara.
- Ahal den neurrian taldean, oinez edo bizikletaz etorriko gara ikastetxera.
- Posible den guztietan oinez edo bizikletaz mugituko gara.
- Garraio publikoa gehiago erabiliko dugu.
- Kotxea erabili behar denean beste batzuekin partekatzen saiatuko gara.
- Bidegorrian gaudenean oinezkoak errespetatuko ditugu.

PROPOSAMENAK
HH-LH



- Zeinbait puntuetan **semaforoa** jartzea, Rondilla kalean adibidez, batzuetan kotxeak ez dira gelditzen. Denbora luzatu eta itxuentzako sistemaren bat jartzea.
- **Abiadura** neurgailu gehiago jartzea gune arriskutsuetan. Adibidez : Amarotzen, Paper kalean... Zuzenak diren errepideetan autoek abiadura handia hartzen dute.
- **Seinaleak** bistara eta modu egokian ipintzea, eta zaharrak berritzea. Batzuetan zuhaitzen adarrak tapatu egiten dituzte eta besteetan pegatinak dituzte gainean.
- **Bidegorriak** hasieratik bukaeraraino konexioak bermatzea eta mantendu lanak egitea.
- **Hiribusa**, gehiago eta maizago jartzea, ikasleen sarrerekin bat eginez .

DBH 1/2

Bizikleten herria eta ibilgailuen kontagailua

- Bizikletan ibiltzen direnak eta gure herriko bidegorriak aztertu ditugu.
- Kalera atera gara ibilgailuak kontatzera eta behatzera, ondoren hausnarketa egin dugu.

DBH 3/4

Lanera, erosketara, oporretara... mugitzeko beharrak

- Herritarrei galdetegi bat pasa diegu erosketarako eta lanerako ohituren berri izateko.
- Herriko garraoien azterketa bat egin dugu.

ONDORIOAK DBH

- Trafiko arazoak egoten dira Tolosan, bereziki 8tan, arratsaldeetan eta larunbat goizetan.
- Ondoko herrietako trenak askotan berandu etortzen direnez gurasoek kotxez ekartzen gaituzte entrenamentu eta partidoetara.
- Kotxe askok ez dituzte zebrabideak errespetatzen.
- Kotxea aparkatzeko leku gutxi dago, batzuetan ordaindu egin behar da eta "tarifa"k oso garestiak dira.



- Bizikleta lapurreta asko egoten dira bereziki polikiroldegiaren kanpoan eta triangulo plazan.
- Bizikleten trafikoa izugarri haunditu da eta ordu puntualetan bidegorrrian ez gara sartzen.
- Bizikleten aparkaleku gutxi daude eta horregatik aparkatzen dugu behar ez den lekuetan: bankuetan, zuhaitzetan...
- Bizikletak oinezkoen ondotik ziztu bizian pasatzen dira eta hori ez dago ondo.
- Ikasleak musika entzunez joaten gara eta hori oso arriskutsua da.
- DBHko ikasleoi lotsa ematen digu kaskoa ipintzea.

BATXILERGOA

ESPAZIO PUBLIKOAREN AZTERKETA

San Frantzisko eta **Rondilla kalea** aztertu dugu eta hauek dira atera ditugun emaitzak:

<u>San Frantzisko kalean:</u>

- Oinezkoentzako toki zabala dago eta ibiltzeko atsegina da.
- Desgaitasun fisikoa dutenentzat, ume-kotxeentzat... ez dago oztoporik.
- Bidegorria zeharkatzen du.

<u>Rondilla Kalean:</u>

- Espaloiak estuak dira, oinezkoentzako ez da atsegina.
- Desgaitasun fisikoa dutenentzat, ume-kotxeentzat... ez da batere erosoa.
- Jendeak zebra-bidetik kanpo gurutzatzen du eta kotxeek ez dituzte hauek errespetatzen.
- Ez dago bidegorria.



KONPROMISOAK
DBH / BATXI

- Garraio publikoa gehiago erabiliko dugu.
- Bizikletan kaskoa jarrita eramango dugu.
- Posible den herrietara oinez edo bizikletaz mugituko gara.
- Bizikletan abiadura motelagoan ibiliko gara.
- Euria egiten duenean ere bizikleta hartuko dugu, xira jantzita.
- Posible denean kotxea erabili ordez, zerbitzu publikoa erabiliko dugu.

PROPOSAMENAK
DBH-BATXI

- Autobusen/trenen maiztasunak handitzeko eskaera egitea. Hiribusan linea gehiago jartzea ikastetxeetako ordutegiarekin bat egiteko aukera izateko.
- Herriko bidegorriaren sarea eta loturak osatzea.
- Irristakorrak diren lur zoruak hobetzea eta elbarrientzako trabak ekiditea.
- Gazteei eta umeei zuzenduta bizikletak era egokian erabiltzeko kontzientziazio saioak egitea.

DATORREN IKASTURTEAN

Esku-hartze fasean murgilduko gara eta ekimenak diseinatu eta martxan jarriko ditugu.

Tolosako hezkuntza komunitateak, udal agintarien laguntzarekin, ahaleginak egingo ditugu iraunkortasun eta lankidetzaren kultura zabaltzeko.